

KOSTU-EGITURA

Zaila da kalkulatzeko zeintzuk diren enpresa honen kostuak; hala ere, badakigu kostu garrantzitsuena aplikazio bat sortzea dela eta enpresa bati ordoaintzea gure aplikazioa garatzeko. Gure produktu hau Gipuzkoako Diputazioari saldu nahi diogunez, beraiek finantzatzeko dituzte kostuak. Hauek dira enpresaren gutxi gorabeherako kostu finkoak, aldakorrak eta eskala-ekonomiak:

KOSTU FINKOAK (urtekoa / hasierakoa)

- Aplikazioa garatu eta martxan jartzea: 10.000 euro inguru
- Zerbitzariak eta azpiegitura digitala: urtean 6.000 euro inguru
- Administrazio + lege kontuak + aseguruak: urtean 5.000 euro inguru
- Marketin hasierakoa: 3000 euro inguru

Hasierako inbertsio totala (1. urtea): 25.000€ inguru.

KOSTU ALDAGARRIAK (hilero)

- Ordainketa-pasabideen komisioak: 0,15 – 0,30 € / bidaia
- Bezero arreta eskalagarria: 1.000 – 3.000 € / hilabete
- Bonus eta pizgarriak gidarientzat: 200 – 1.000 € / hilabete

Kostu aldakorrak hilero: 1.000 – 4.000 €

ESKALA-EKONOMIAK

- Unitateko kostua jaitsiera: %20 – %40 (erabiltzaileak handitzean)
- Hileko kostu tekniko gehigarriak eskari handitzean: 200 – 600 €

HEDAPEN-EKONOMIAK

- Zerbitzu berria gehitzearen kostu gehigarria: 2.000€ inguru
- Mantentze gehigarria: 0 – 300 € / hilabete

LABURPENA

- Hasierako inbertsioa: 25.000€ inguru
- Urteko mantentze minimoa: 15.000-20.000 euro

